

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

## *Sukarrieta*

Aurkibidea

# Udalerria: Sukarrieta

## Sarrera



Bizkaiko iparraldean  
kokatutako herri bau  
Busturialdea eskualdean eta  
Mundakako itsasadarraren  
eskuin-ezker aldeetan dago  
kokatuta. Herrigunetik  
aparte, itsasadarraren beste  
aldean dagoen Kanala auzoko  
zati bat Sukarrieta udalerriri  
dagokio. Ondorioz, herriko  
mugak oso zabaldua daude:  
Mundakaren egiten du muga  
iparraldean eta  
mendebaldean,  
Ibarrangelurekin ipar-  
ekialdean, Gautegiz-  
Arteagarekin ekialdean eta  
Busturiako herriarekin  
hegoaldean. XIX. mende  
bukaeran turismoa  
nagusitzen hasi arte, herriko  
ekonomia nekazaritzan eta  
arrantzan oinarritu zen.

- **Biztanleak:** 357
- **Euskaldunak:** %65,54

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **36**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **36**

## Proiektuak

- Fondo partikularrak
- Sukarrietako ahotsak

## Hizlariak

### Jesus Arrien Erkoreka (1933)



Errigoitiko "Barixa" auzoko Bariatzen jaio zen. Gurasoak ere Errigoitikoak zituen. Ama bera umea zela hil zen eta zazpi neba-arrebak aitaren ondoan hazi ziren. Elizaldeko eskolan ibili ostean, 14 urtegaraz seminariora joan zen. Arteako, Gasteizko eta Derioko seminarioetan egon zen 1959. urtean Kanalara (Sukarrieta) etorri arte. Ordudanik bertan egin du bizimodua, Kanala bertako eta Laidako (Ibarrangelu) ababe moduan. Tarteka Kortezubi eta Gautegiz-Arteagako parrokien ardura ere izan du.

### Itziar Goiri Tribis-Arrospe (1938)



Sukarrietako herrigunean dagoen Arrospe jaio eta hazi zen, Sabino Arana hil zen etxe berean. Ama zuen bertakoa eta aita Bilbotik etorritakoa. Gerra garaian ama preso izan zuten jaioberria zen nebagaz batera. Gazterik joan zen Sukarrietatik kanpora ikasten, Bilbora zein Ingalaterrara, baina sekula ez du bere jaioterria albo batera ahaztu. [Leonor Izagirre](#)gaz batera eman zigun garai bateko Sukarrietaren berri.

### Leonor Izagirre Iturbe (1921-2019)



Sukarrietako Arrospe baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen, harrobiko hargina; ama, osteria, Busturiko Madariaga dorretzekoa. Zazpi neba-arrebatan gazteena eta alaba bakarra izan zen. Primo de Riveraren garaitik XXI. mendera arteko Sukarrietako lekukoa izan da Leonor. Baserriko bizimodua ardatz izan zuen familia honek, Gerra Zibilaren eraginak hurbil ezagutu eta jasan zituen. Neba bat Agirre lehendakariaren eskolta izan zen eta Iruñeako San Kristobalgo gotorlekuan izan zuten preso. Beraiek jaioterria utzi eta batetik bestera ibili ziren ebakuatuta: Bakio, Bilbo, Ortuella... Sukarrietako herriaren eta bertako bizimoduaren berri eman zigun [Itziar Goiri](#)gaz batera egindako elkarrizketan.

### Martina Jauregizar Izagirre (1914-2006)

1914ko Urteberri egunez jaio zen Sukarrietako Arrospe baserrian, Mundakatik herrira sartzen dagoen lehenengo etxean. Bere ama ere hangoa zen eta aita Bakiokoa. [Bere semeak](#) egindako hainbat grabazio jaso ditugu bertan.

### **Pedro Laka Olalde (1920-2018)**



Bermeon jaio eta bertako Mañu auzoko Zurtzuri baserrian hazi zen. Urte asko Bermeoko kalean pasa eta gero, 27 urte zituela joan zen Sukarrietara eta ordudanik bertan egin zuen bizimodua. 18 urte gaz, Gerra Zibila tarteko, frontera joatea egoitu zitzaion. Hilabete batzuetara zauritu, ezintasun agiria jaso eta etxera bueltatu zen. 44 urtez Bermeoko hiltegiko arduraduna izan zen.

### **Gerardo Learreta Jauregizar (1943)**



Sabino Arana kaleko sagarreta etxean jaio zen, bere gurasoak denda zuten lekuan, baina [amaren](#) jaiotetxean, Arraspen hazitakoa da Gerardo. Aita Mundakako Agarre baserrikoa zuen. Ume garaia Sukarrieta eta Bermeo artean pasatu ostean, batxillera Bermeon ikasi baitzuen, gurasoen dendan aritu zen beharrean. Soldadutza ondoren, 1966an, Estatu Batuetara joan zen eta Kanada eta Estatu Batuen artean bizi izan zen hainbat urtez jaioterrira bueltatu zen arte.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Politika**

#### **1.1. Arana Goiriren alarguna kartzelan**

- **Hizlaria(k):** Goiri Tribis-Arrospe, Itziar; Izagirre Iturbe, Leonor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Zabarte Narbaiza, Ainhoa
- **Erref:** SUK-005/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Espainiako Gerra Zibilean Bilboko Maria Muñoz eta kaleko kartzelan egon zen Itziarren ama. Seme jaioberriarekin eraman zuten bertara. Han Sabino Arana Goiriren alarguna, Nikole Atxikallende, ere egon zen. Itziarren amak esan zion ez esateko Arana Goiriren alarguna zenik, bigarren senarraren alarguna zela baizik; izan ere, bigarrenetaz ezkondu zen.

#### **Transkripzioa**

-Ze egon zan zure ama kartzelan?

-Itziar: Nire ama kartzelan ume jadxo barridxegaz bi-hiru hillabete edo holan, ta tokau jakon jutie Maria Muñozera.

-Leonor: Saturrararen ez zien egon hor horrek?

-I.: Ez, horrek izen zien Maria Luisan ama ta.

-L.: A! Egixe! Maria Luisana ta, Celia ta Susana ta ezta?  
-I.: Celia ta, baina jungo zien batetik bestera. Nik ez dakit gure amagaz baegoan, baegozan horrek edo horrek eroan ebezan zerera.  
-L.: Saturraranera?  
-I.: Saturraranera. Bueno, ba ama egon zan horregaz, "con la Nicole".  
-L.: Nicole, Nicolasa, Nicolasa euki eban izena.  
-I.: Nicolasa Achicallende. Eta esan eutson, "Zuk Nicole esan bihar dozu que no eres viuda de Sabino Arana" diño, ez jako konbeni horrerri "que es viuda de Sabino Arana".  
-L.: Klaro, "porque si no le meten mas dentro".  
-I.: "Zuk esango dozu zarela viuda de Alegria". Ze ezkondu...  
-L.: Sí, despues ezkondu zan con Alegria.  
-I.: Con Alegria, sí.  
-L.: Con el tío de Mari Tere.  
-I.: Bera zaharraue Alegria baiño ez dakit zazpi urte edo geidxau.  
-L.: Bai, izengo zan. Ta kapitxena izen zan ademas.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Baserritik atara behar bizimodua (SUK-002/003)

Ama berak urte eta erdi zuela hil zen. Baserriko lana zen beraien bizimodua, eta soloak ondo landu behar ziren. Bera txikiena zen eta txikitako bere eginkizunak iturritik ura ekartzea, egurra txikitzea, behiak jagotea... zen.

### 2. 1959tik Kanalako abade (SUK-002/004)

Hamalau urtegaz seminaria joan zen eta 25 urtegaz abadetu. 1959ko Abuztuaren 28an heldu zen Kanalara, barikuz. Domeka hartan irten zuen lehen aldiz bertako aldarera. Herria maisu handi bat dela dio; begiak eta belarriak zabalik bizi behar omen da, irakasten barik ikasten. Orduko hartan Gautebiz-Arteagan hiru abade zeuden eta gero berak hartu zuen bertako ardura. Kortezubiko ardura ere izan du hiruzpalau urtetan. Hasieran batean Kanalako eta Laidako (Ibarrangelu) elizetako arduraduna baino ez zen izan.

### 3. Laidako elizako abade (SUK-002/006)

Laidako eliza Akordako parrokiako parte da, biak Ibarrangelu herrikoak. Hala ere, 1948tik Kanalatik zerbitzatzen da.

### 4. Elizaldeko eskola eta Zallobenteko auzo-eskola (SUK-002/008)

Baserrian jaio zen eta seme-alaba gazteena izan arren, umetatik aritu behar izan zen bertan lanean. Elizaldeko eskolara joan zen, nahiz eta Zallobentekoa hurrago eduki. Zallobenteko eskola auzo-eskola zen eta baserritarrek ordaintzen zuten eta bertan ere parte izan arren, auzoko beste batzuei laguntzearren Elizaldekora joaten ziren beraiek ere. Don Juan Redondo errioxarra izan zuten maisu.

## **5. Elizaldeko eskola (SUK-002/010)**

Elizaldeko eskolan ikasi zuen irakurtzen. Olgetako ez zuten pilotarik, baina bai trapu-pilotak. Bertako eskolan jaso zuten beraien lehen kultura, gero kultur etxe bihurtu den eraikin berean. Neskak Uria auzoko eskolara joaten ziren, Elizaldekora mutilak baino ez.

## **6. Dotrina eta lehen jaunartzea (SUK-002/011)**

Dotrina don Juan Añibarro zeanuritarrak ematen zien. Astelehenez izan ezik gainerako egunetan izaten zuten dotrina. Egunen batean abadea falta izanez gero, postu egiten zirela dio, jolasteko aukera izaten zuten-eta. Lehen jaunartzea goizeko zortzietako mezan hartu zuen. Etxera bueltatu, txokolatea hartu eta hamaiketako mezara bueltatu behar ziren. Txarolezko zapatak eta marinel arropak jantzita egin zuen jaunartzea. Gauza gutxirekin pozik bizi ziren.

## **7. "Txopinke" (SUK-002/013)**

"Txopinke" jolasa azaltzen du. Mutilak baino ez ziren aritzen, neskak beste auzo bateko eskolan egoten baitziren.

## **8. Maisu errepublikazalea zuten, herrian maitatua (SUK-002/015)**

Elizalde eskolan maisu bakarra ezagutu zuen Jesusek: don Juan Redondo errioxarra. Eskolara sartu aurretik "¡Viva España!" esan behar zuten arren, ez zieten gogor egiten sasoi hartako abestiak ikasteko. Errepublikazalea zen, lehenagoko postu batetik hara bidalitakoa. Abadeari eta maisuari biei, "don" esaten zien.

## **9. Seminarioira joateko erabakia (SUK-002/018)**

Herrian zuten abadea eredutzat hartuta erabaki zuten Errigoitiko hainbat mutikok seminariora joatea. Abadea, maisua eta medikua ziren garai hartan askorentzat eredu. Askok erdibidean uzten zuten hasitakoa.

## **10. Kanala auzoa bi udalerritakon auzoa (SUK-002/020)**

Kanala auzoa bi udalerriren artean dago banatuta: Sukarrieta eta Gautegiz-Arteaga. Demokraziaren sehaska auzo hau dela dio umorez; bakoitzak nahi duen herrikoa izan ahal duelako. Izan ere, badaude bi etxebizitza dituzten pare bat etxe, etxebizitza bakoitza udalerrri desberdinetakoak direnak.

## **11. Arteako seminarioko egunerokoa (SUK-002/022)**

Arteako seminarioan zelan bizi ziren azaltzen du.

## **12. Seminariokoa, pertsona gogortzeko bizitza (SUK-002/023)**

Arteako seminariotik Gasteizkora joan zirenean, han latinez egin behar zuten, baita azterketak ere. Latina zen zuten irakasgairik garrantzitsuena. Kultura sendo, zabal eta ona zuten. Seminarioak bizi izaten eta pentsatzen laguntzen du. Pertsona zaildu, gogortu, egiten du seminarioak. Batxilerra, filosofia eta teologia ikasten zituzten.

### **13. Gasteizko seminarioan maisu entzutetsuak (SUK-002/025)**

Gasteizko seminarioko maisua entzute handikoak ziren: Urbano Gil, Andres Ibañeta, Zapirain, Pepe Manzana, Cirarda, Sukia zaldibiarra, Larrea gotzaia... Gerora Derion izan zituen maisu batzuk ere aipatzen ditu.

### **14. Seminarioan euskara gutxi (SUK-002/029)**

Gasteizko seminarioan bizkaitarrek beraien artean erdaraz egiten zuten, gipuzkoarren artean euskara gehiago entzuten zen. Artean, ostera, zer edo zer bai egiten zuten. Derion eguenero (ostegunero) zuten euskarazko klase bat. Beste abade batzuk gipuzkoarrekin landu zuten gehiago euskara.

### **15. Abadeek herrietan euskara lantzeko ahalegina (SUK-002/031)**

Seminarioan euskarak ez zuen indarririk, baina gero herrietan Elizak indar asko izan du eta lan asko egin du, euskarazko dotrina eta abestiak landuz.

### **16. Mezak latinez eta lepoz ematetik, aurrez eta euskaraz ematera (SUK-002/035)**

Bera abadetu eta gero mezak latinez izaten ziren eta jendeari atzea ematen zion abadeak. Sermoiak-eta, euskaraz izaten ziren. Latinez ziren mezak eliztarrek ez zituzten ulertzen. Erromari urte asko kostatu zitzaion egoera edo premia berriez ohartzeko. Frantzisko I. Aita Santua pozez hartu dute askok.

### **17. Madariaga dorretxekoa zuen ama (SUK-005/003)**

Leonorren ama Busturiko Madariaga dorretxeko alaba da, bertan jaioetakoa. Hainbat etxebizitza zituen dorretxeak eta baserri moduan funtzionatzen zuen.

### **18. Sukarrietako harrobia (SUK-005/006)**

Leonor neba-arrebatan gazteena eta alaba bakarra izan zen. Bere nebak ez ziren etxean askorik egoten, kanpoan egiten baitzuten behar. Bere aitak harrobian egiten zuen eta ama ortuko eta baserriko lanez arduratzen zen. Leonorren aita harrobiko behargina zen. Harrobia non zegoen azaltzen dute. Gaur egun etxeak daude hor, Txatxarramendiko zubi aurrean.

### **19. Sukarrietako mugak, Sanikole (SUK-005/007)**

Harrobia Txatxarramendiko zubi aurrean zegoen. Sukarrieta eta Busturia arteko muga hor inguruan egon arren, lehenago horiek Sukarrietako lurrak zirela diote. Herriko mugan zabalak dira eta itsasadarraren beste aldera, Kanala auzora, ere heltzen da. Erdiko irlan eliza zegoen. Bi eliza nagusi zeuden herrian: Sanikole eta Sanindere. Horregatik, erdiguneari 'Sanikole' deitu izan diote bertakoek, ez dute 'Sukarrieta' edo 'Pedernales' erabili izan. San Nikolas eta Santanderretik ekarritako San Andresen omenezkoak dira elizok.

### **20. Itziarren ama Arana Goiriren emazteagaz kartzelan (SUK-005/008)**

Sabino Arana Abiña auzoko ermitan ezkondu zen. "Sabiñesie" deitzen zioten bere emazteari, baina bigarren ezkontzerakoan galdu egin zuen ezizen hori. Itziarrek ama seme jaioberriagaz batera egon zen Gerra Zibilean kartzelan eta "Sabiñesie" ere eurekaz batera egon zen.

## **21. Sabino Arana Sukarrietan bizi eta hil (SUK-005/012)**

Sabino Arana Sanindere ikertzen etorri zen Sukarrietara. Herrira heldu zenean non bizi zen. Itziarren aititeren etxean bizi izan zen gerora alokairuan. Esnea saltzen zuen herritar batekin ezkondu zen. Itziar jaio zen etxean hil zen Arana Goiri. Leonorren aita haren hileta-elizkizunean egon zen.

## **22. Maisu gogorra, hagina apurtu zion (SUK-005/015)**

Antzina jende asko bizi zen Sukarrietan. Orain gutxi eta kanpokoak. Elizak ere beterik egoten ziren. Eskolan ere ume asko batzen ziren. Itziarren batxillerra ere ikasi zuen, bere aitak ikastea nahi zuelako, baina horretarako Sukarrietatik irten behar zen. Leonorrek Sukarrietako eskolan izan zuten Mariano Blanco maisua aipatzen du, gogor jotzen zien. Berari hagin bat apurtu zion behin ez zuelako mapan leku bat kokatzen jakin. Valladolidekoa zen eta gerra aurretik izan zuten.

## **23. Sukarrietako antzerkiak (SUK-005/018)**

Gerra aurreko maisua Mariano Blanco izan zen. Gerra hasieran Mundakara joan zen eta alkate izendatu zuten. Gerraostean, maistrak etorri ziren, Aurora eta Federica ziren horietako batzuk. Federicarekin antzerkiak egin zituztela gogoan du Leonorrek. Txatxarramendiko hotelean ere egiten ziren antzerkiak eta jende asko joaten zen ikustera. Barre egiteko antzerkiak ziren.

## **24. Sukarrietako dantza-taldea (SUK-005/019)**

Itziarrek dio don Tomasegaz ere antzerkiak egiten zituztela Kolonietan. Leonorrek, oster, dantzak egiten zituztela don Tomasekin, hilandera baitzen. Horman ikus dezakegu orduko dantza-taldeko argazkia. Argazkia kanposantuan ateratakoa da, Jose Antonio Agirre bertara etorri zenekoa. Leonorren neba bat Agirre lehendakariaren eskolta izan zen.

## **25. Leonorren neba miñoia, heriotza-zigorrera kondenatua (SUK-005/020)**

Leonorren neba bat Agirre lehendakariaren eskolta izan zen eta Iruñeako San Kristobalgo gotorlekuan izan zuten preso heriotza-zigorrera kondenatua. Orduan Itziarren amak lagundu zion Leonorren amari gutun bat idazten soldadutza polizia foral, miñoi, modura egin zuela idatziz.

## **26. Itziarren ama kartzelatik gaixo irten eta nebari bularra beste emakume batek eman zion (SUK-005/021)**

Itziarren ama seme jaioberriagaz kartzelan izan zuten. Emakumeen Batzako presidente izan zen bere ama. Tifusak jota irten zen kartzelatik eta larri egon zen ama. Bitartean bere nebari herriko beste emakume batek eman zion bularra, Eusebiak, Betanzostarren ama.

## **27. Gerrako ebakuazioa (SUK-005/022)**

Gerra garaian Leonor ebakuatuta joan zen herritik kanpora bere bi lehengusina lagun zituela. Agirre lehendakariaren eskolta zen bere neba bat eta hark lagundu zien. Sukarrietatik Bakiora joan ziren handik Bilbora eta Ortuellara joan aurretik. Ortuellan koinata eta haren umeekin egon zen, miñoien kuartelean. Egoera txarrean egon ziren, zubi azpian ere egin behar izan zuten lo.

## **28. Jaioberrian patinean ezkutatuta (SUK-005/023)**

Itziarren neba Gernikako bonbardaketa izan zenean jaio zen. Beste jaioberri batekin etxeko patinean gorde zuten, han koltxoak jarrita bonbetatik babestuago egongo zirelakoan.

## **29. Neba presoaren umeak jagoten (SUK-005/024)**

Leonor eta bere lehengusinak neskak zirelako joan ziren ebakuatuta gerra garaian. Miñoia zen bere nebak gomendatuta egin zuten alde, izan ere mairuen beldur ziren, hauek neskak gazteak erasotzen zituztelakoan. Ortuellako miñoien kuartelean egon ziren eta han azaldu zitzaizkien gero bere ama eta izeko ere. Handik Carlton hotelera joan ziren, han egon baitzen bere neba, Eusko Jaurilaritza egoitzan. Bere nebak bi ume txiki eta emaztea ere zituen han eta ume bat beraiekin bueltatu zen etxera. Neba preso eraman zutenean Iruñeara, koinata ere Iruñeara joan zen neskame eta Leonorrek zaindu zituen bere bi ilobak.

## **30. Ebakuazioan erasoan erdian kalera irten zenekoa (SUK-005/026)**

Leonor eta bere lehengusinak neskak zirelako joan ziren ebakuatuta gerra garaian. Miñoia zen bere nebak gomendatuta egin zuten alde. Ortuellara zahiz beteriko kamioneta batean eraman zituen nebak. Ortuellan txarto pasatu zuten. Behin zeuden lekutik irten zen lehengusina batekin kanpaiak entzuterakoan. Teniente batek kalean ikusi eta zakuz beteriko babesleku batean sartu zituen. Tarte hartan, beste lehengusinak eta koinatak hilda zeudela uste zuten.

## **31. Salatari bategatik Sukarrietako emakumeak kartzelan (SUK-005/031)**

Sukarrietako emakumeak herriko beste emakume batek salatu ostean kartzelaratu zituzten. Itziarren amak hilabete gutxi batzuk egin zituen barruan, baina beste batzuk urte luzez egon ziren. Larrinagako eta Saturrarango kartzeletan egon ziren. Itziarren koinata bati 50 pezetako isuna jarri zien "Eduarne" izenarekin sinatu zuelako.

## **32. Kartzelako ezkutuko mezuak fardel zikinen artean gordeta (SUK-005/032)**

Kartzelan zeudenak han egindako eskulanak bidaltzen zituzten etxera. Itziarren ama seme jaioberriagaz egon zen kartzelan. Aita bilbotarra zen eta haren familia joaten zen bertara oihalezko fardelak eramatera. Fardel zikinen artean ezkututzen zituzten ezkutuko mezuak. Don Antonio abadeak ere antza, galtzerdietan sartuta ateratzen zituen mezuak. Abade hori ere preso egon zen Leonorren senarragaz batera.

## **33. Batzokian batzen ziren dantza-taldekoak (SUK-005/036)**

Sukarrietako batzokia non zegoen azaltzen dute. Bertan entseatzen zuten dantza-taldekoak.

## **34. Gerran dantza-taldeko arropak lurperatu (SUK-005/037)**

Dantza-taldeko arropak Abelinak egiten zizkien. Gerra garaian, arropa guztiak kaxa batean sartu eta lurperatu egin zituen inork ez harrapatzeko. Gauza asko gorde zituzten horrela eta gero alferrik galdu ziren.

### 35. Uhagonekoei dena errekisatu eta semea fusilatu (SUK-005/039)

Gerra hasi zenean batzokia zarratu egin zuten. Han bizi zirenak, "Aguazillenekuek", ez ziren EAJ-PNVkoak. Uhagon jauregikoei gauza asko errekisatu zizkien. Leonor bertan lan egindakoa zen ezkondu aurretik eta jendeak hango alfonbra luzeak zatika moztu eta eraman zituela du gogoan. Uhagoneko seme bat, Josetxu, fusilatuta hil zuten Bilbon.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2024-05-15*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com